

**GOBERNU JUNTAK 2016.07.12an EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

BOKALAK

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA
ELENA LETE GARCIA
LANDER ARREGI INCHAUSTI
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
MIKEL BIAIN BERRAONDO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
ESKORIATZA
OÑATI

ETORRI GABEAK

MARIA UBARRETXENA CID
IBON ARRUPE ALDECOCEA
OSCAR GARCÍA HORRILLO
SABINO AZCARATE LETURIA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
ENEKA ZANKADA REMENTERIA
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
ELGETA
LEINTZ-GATZAGA
OÑATI
OÑATI

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2016ko uztailaren 12an, 12:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren ohiko bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2016ko ekainaren 14an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- 2016-2019 plan ekonomiko-finantzarioa

Entitate honek onartutako kreditu aldaketa espedienteak ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua/zor publikoaren helburua/gastuaren araua. Hortaz, beharrezkoa da plan ekonomiko-finantzario bat egitea, otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duenak, 5. artikuluan jasotakoaren arabera.

Plan horrek ezaugarri hauek bete behar ditu:

- Plan ekonomiko-finantzarioa entitateko Gobernu Juntari aurkeztu behar zaio, hilabeteko epean gehienez, ez-betetzea egiaztatzen denetik aurrera. Gobernu Juntak bi hilabeteko epean onartu behar du plana, aurkezten zaionetik aurrera, eta hiru hilabete igaro baino lehen jarri behar da martxan, ez-betetzea egiaztatzen denetik aurrera.
- Planak bermatu behar du aurrekontu egonkortasunaren helburua/gastuaren araua jarduneko ekitaldian edota hurrengoan betetzen dela.

(Zor publikoaren helburua betetzen ez bada, hori lortzeko epea plan-ekonomiko-finantzarioan ezarritako bideari egokituko zaio, eta inoiz ere ez du gaindituko 2020. urteko denbora muga.)

- Onartutako plan ekonomiko-finantzarioa Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali behar zaio, haren jarraipena egin dezan.

Hori dela-eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Onartzea plan ekonomiko-finantzarioa, hiru atal hauek dituenak:
 1. Kontu-hartzailearen txostena.
 2. Lehendakariaren memoria.
 3. 2016-2019 epealdiko aurrekontu eszenarioa.

2.2.- Udalei altxortegi gerakinen itzulera

Kontu-hartzailearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- 2015eko likidazioa eta kontu orokorraren ondoren, udalei altxortegi gerakina itzultzea, ondorengo xehikapenaren arabera:

2015ko likidazioko gerakin banaketa eta 2016erako kreditu gehigarrien proposamena

	B	B	B	Z		H	B	B	B	
	Orokorrak	Ezinduen Garraioa	Kirola	Ingurumena	Epele	Hiltegia	Garapen proiektuak	Garapen Agentzia	Turismo	Guztira
Gastu orok. altx. gerakina	104.042,60 €	0,00 €	15.613,24 €	1.044.449,32 €	558.345,54 €	18.000,00 €	158.066,68 €	194.481,48 €	83.295,77 €	2.176.294,63 €
N+1 ekitaldirako txertatzeak	4.580,36 €	0,00 €	0,00 €	472.765,83 €	558.345,54 €	0,00 €	118.234,29 €	0,00 €	0,00 €	1.153.926,02 €
Txertatu ezin diren kreditu-gerakinak	99.462,24 €	0,00 €	15.613,24 €	571.683,49 €	0,00 €	18.000,00 €	39.832,39 €	194.481,48 €	83.295,77 €	1.022.368,61 €
Paga extra	12.956,90 €			36.277,75 €			1.143,45 €	5.123,03 €	4.233,28 €	59.734,41 €
Epeleko fondoari itzuli				125.000,00 €						125.000,00 €
Edukiontzia erostea				50.000,00 €						50.000,00 €
Garbigune inbertsioak				20.000,00 €						20.000,00 €
kamioiak erostea				60.000,00 €						60.000,00 €
Hazilan kilometrajeak									10.000,00 €	10.000,00 €
BasqueMountains									18.150,00 €	18.150,00 €
Guztira:	12.956,90 €	0,00 €	0,00 €	291.277,75 €	0,00 €	0,00 €	1.143,45 €	5.123,03 €	32.383,28 €	342.884,41 €
Udalei itzultzeko gerakina	86.505,34 €	0,00 €	15.613,24 €	280.405,74 €	0,00 €	18.000,00 €	38.688,94 €	189.358,45 €	50.912,49 €	679.484,20 €
Ekarpen irizpidea	2015 gerakina	Ekarpena 2016	likidoa							
Epele	0,00 €	0,00 €	0,00 €							
Udalenak										
Biztanleka	432.685,12 €	51.606,66 €	381.078,46 €							
Zergadun baliokideka	571.683,49 €	291.277,75 €	280.405,74 €							
Hiltegia	18.000,00 €	0,00 €	18.000,00 €							
Guztira	1.022.368,61 €	342.884,41 €	679.484,20 €							

	Biztanleka	Biztanleka Elgeta gabe	Zergadun baliokideka	Udal Gerakina 2015
2015ko gerakina herriko				
ANTZUOLA	%3,49	%3,56	%2,93	32.497,64 €
ARETXABALETA	%11,14	%11,28	%10,94	112.739,10 €
ARRASATE	%35,11	%35,88	%34,83	357.503,28 €
BERGARA	%23,61	%24,02	%26,02	255.243,65 €
ELGETA	%1,78	%0,00	%2,15	20.042,26 €
ESKORIATZA	%6,51	%6,61	%6,09	64.190,69 €
GATZAGA	%0,39	%0,42	%0,23	3.091,55 €
ONATI	%17,96	%18,23	%16,80	177.060,43 €
GUZTIRA	%100,00	%100,00	%100,00	1.022.368,61 €

Biztanleka	Fondoari itzulera irizpidea	Zergadun baliokideka	Udal Ekarpena 2016	Kopurua Dirutan
	%3,50	%2,85	%2,86	10.120,09 €
	%11,12	%10,71	%10,80	37.087,91 €
	%35,16	%35,29	%35,13	120.675,46 €
	%23,57	%25,89	%25,93	87.642,79 €
	%1,78	%2,32	%2,22	7.513,55 €
	%6,51	%5,99	%6,07	20.935,76 €
	%0,38	%0,34	%0,23	1.014,90 €
	%17,98	%16,61	%16,75	57.893,95 €
	%100,00	%100,00	%100,00	342.884,41 €
	51.606,66 €	125.000,00 €	166.277,75 €	342.884,41 €

2.3.- Arrasateko Udalarekin dokumentuen sarrera erregistroari buruzko lankidetzaren hitzarmena

Arrasateko Udalak urte osoan, abuztuan ere, bere Biztanleen Arreta Zerbitzua irekita du, udaleko leihatila bakar gisara, besteak beste, Udaleko Erregistro Orokorrean eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak aurkeztu ahal izateko.

Debagoieneko Mankomunitateak, berriz, bere Erregistro Orokorrean enplegatu bakar bat duela eta, Erregistroan mugimendu gutxien dagoen hilabetea abuztua denez, abuztuan hartuko dituela bere oporrak, abuztuaren 1etik 29ra arte, Erregistro Bulegoa itxita egongo delarik.

Abuztuko egun horietan Debagoieneko Mankomunitateari zuzendutako eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak Arrasateko Udalaren Erregistro Bulegoan, Biztanleen Arreta Zerbitzuan, aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua araberak, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Arrasateko Udalarekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

“LEHENA.- Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 38 artikuluan ezartzen duenez eta xede horretara sinatutako hitzarmen honen arabera, herritarrek Debagoieneko Mankomunitateari zuzendutako eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak Arrasateko Udaleko Erregistro bulegoan aurkeztu ahal izango dituzte **2016ko abuztuaren 1etik 29ra arte**, biak barne, bertako ordutegian.

Arrasateko Udaleko Erregistro Bulegoa honako hau da:

- *Kokapena:* Arano eta Garcia maisu-maistrak 8.- ARRASATE.
- *Ordutegia:* abuztuan: astelehenetik egubakoitzera arte 8:30 - 14:00.
- *Tel.:* 010 Arrasate / 943252000 Arrasate kanpo
- *Fax:* 943252050

Hau aipatu Legeak 38.4 artikuluan adierazten dituen bideetatik edozein erabiltzeko aukera galarazi gabe: Estatuko eta Autonomi Elkarteetako administrazioaren organoetako erregistroetan, postetxeetan, eta Espainiako Estatuak atzerrian dauzkan ordezkarietako diplomatikoetan edo konsuletxeetan.

BIGARRENA.- Herritarrek Arrasateko Udaleko Erregistroan aurkeztutako eskaera, idatzi eta jakinarazpenen datek balio osoa izango dute Mankomunitatearen aurrean interesatuek bete beharreko epeetarako.

HIRUGARRENA.- Arrasateko Udalak Mankomunitateari zuzendutako idatziak onartu eta behar bezala izapidetuko ditu, dokumentuen erregistroei buruzko arauen arabera eta, zehazki, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38 artikulua diotenaren arabera. (Ikus Hitzarmenaren eranskina).

LAUGARRENA.- *Debagoieneko Mankomunitatearen ardura izango da berari zuzendutako idatziak, erregistratu ondoren, Arrasateko Udaleko Erregistro bulegotik lehenbailehen jasotzea indarrean dagoen legediaren arabera berme eta eskakizunak betetzeko xedez.*

3.- HONDAKINEN KUDEAKETA

3.1.- Alboko kargako ibilgailuen bidez jasotzeko edukiontziz hornitzeko kontratazio espedientea; eskaintzen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2016ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, alboko kargako ibilgailuen bidez etxeko hondakinak jasotzeko edukiontziz hornitzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze-prozedura irekitzea erabaki zuen.

Horretarako emandako epean ondorengo proposamenak aurkeztu ziren:

1. CONTENUR, S.L.
2. PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A.

B gutun-azalean jasotako dokumentazioa eta bi lizitzaileek aurkeztutako ereduak aztertu ondoren, Kontratazio Mahaiak, CONTENUR, S.L. enpresak aurkeztutako proposamena baztertua erabaki zuen Baldintza Teknikoen Agiriaren 3. klausularen 3.1 atalaren 9. puntuan jasotakoa ez betetzeagatik, hau da, *“Ontzien eta papera-kartoiaren edukiontzia Komertzioentzat ate edo gaineko tapa zabala eduki behar dute. Tapa hauek bere sarraila eta giltzekin hornitu behar ditu esleipendunak.”*

CONTENUR, S.L. enpresaren proposamena baztertu ondoren, proposamen bakarra gelditu denez, PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A. enpresak aurkeztutakoa, eta honek Baldintza Agirietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituen, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. PLASTIC OMNIUM SISTEMAS URBANOS, S.A. enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, 1. gutun-azaleko dokumentazioa, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duen dokumentazioa, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa, eta 5.250 €-ko behin betiko bermea aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena, dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.2.- Etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko alboko kargako ibilgailu bat presaka hornitzeko kontratazio espedientea; eskaintzen sailkapena

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2016ko ekainaren 8an egindako bilkuran, etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko alboko kargako ibilgailu batez hornitzeko kontratazio espedientea, gastua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza

Teknikoen Agiriak onartu zituen eta esleitze-prozedura irekitzea erabaki zuen, espediente hau presazkoa deklaratur.

Horretarako emandako epean eskaintza bakarra aurkeztu da, eta onartu egin da, SERVICIOS INTEGRALES VEHÍCULOS URBANOS, S.L. enpresarena.

Aurkeztutako eskaintzak ezarritako baldintza guztiak betetzen dituenek, Kontratazio Mahaiaren proposamena jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. SERVICIOS INTEGRALES VEHÍCULOS URBANOS, S.L. enpresari hamar laneguneko epea ematea, Mankomunitatearen errekerimendu hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, laneko arriskuen prebentziorako dokumentazioa, eta 8.925 €-ko behin betiko bermea aurkezteko.
2. Kontratu honen esleipena, dokumentazioa jaso ondorengo bost lanegunen barruan egingo da.

3.3.- Txatarra saltzeko BAÑU-ETXE, S.L. enpresarekin sinatutako kontratu luzatzea

Mankomunitate honek jasotako txatarra saltzeko BAÑU-ETXE, S.L. enpresarekin 2010eko irailaren 1ean sinatutako kontratuaren hirugarren klausulan ezarritakoaren arabera, eta kontratistaren adostasunarekin, Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipaturiko kontratua beste urte betez luzatzea, hau da, 2017ko abuztuaren 31 arte.

3.4.- Epeleko zabortegeian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gaineko EEH-plataformaren proiektua

HIRIGINTZA, S.A. enpresak idatzitako “Epeleko zabortegeian isurketa-gelaxkaren I faseko konfinamendua eta II fasearen egokitzapena eta I fase gaineko EEH-plataformaren proiektua”, eta proiektu hau gauzatzeko obrak egiteko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu proiektua onartzea eta obra egiteko dagokion baimen-eskaera egitea Bergarako Udalari.
2. Aipaturiko proiektua gauzatzeko obraren esleipenerako bideratu den kontratazio-espeditentea onartzea.
3. Gastua onartzea.
4. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren Agiria onartzea.

5. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

3.5.- Behin behineko informatzaileak; Hondakinen Kudeaketa Batzordearen proposamena

Hondakinen Kudeaketa Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Informatzaileen lan poltsa erabiliz, 4 bitarteko funtzionario izendatzea 6 hilabeterako, 2016ko abuztuaren 1etik 2017ko urtarrilaren 31 arte, Ingurumen Zerbitzuko ondorengo lanak egiteko:
 - Udazkenean Aretxabaletan ezarriko den 5. edukiontzi bidezko hondakin bilketa martxan jartzeko, ibilbideak marraztu, dimentsionamenduan lagundu eta herritarrei txartelak banatzeko, ondoren ezarpenaren jarraipena egin eta optimizazioan laguntzeko, eta hondakin bilketa eta udaletako kale garbiketako langileen arteko koordinazioa, hondakinen bilketako ikuskaritza lanak eta hondakinen bilketako informazio bulegoetan arreta zerbitzua eskaintzeko.

Hileko 2.070,50 €ko ordainsari gordina emango zaie, honela banatuta:

- Soldata: 713,13 €. (C1)
- Lanpostu mailako osagarria: 374,82 €. (17)
- Berariazko osagarria: 982,55 €.

3.6.- Epeleko zabortegiko lursailaren bi eremu pinuak ateratzeko erabiltzeko baimen eskaera

A.V.U.k Mankomunitateari ondorengo eskaera egin dio: Epeleko zabortegiaren ondoko eremuan dagoen bere jabetzako lursaileko pinuak ateratzeko Mankomunitatearen jabetzako bi eremu erabiltzeko baimena ematea, bertan pinuak pilatu, transferentzia egin eta eramateko. Lan hauek uztailaren erdialdera hastea eta irailean bukatzea aurreikusten du.

Aipatu eskaera ikusirik, eta Ingurumen Zerbitzuko teknikariek aztertu ondoren, Hondakinen Kudeaketa Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- **A.V.U. eskatutako baimena ematea ondorengo baldintzetan:**

SARBIDEAK ETA PINU GARRAIO LANAK

Pinuak ateratzeko bidea, beheko argazkian adierazten dena da.



1. Argazkia. Alboko terrenoetatik pinuak ateratzeko bidea

Bide hau erabiltzeko baldintzak honakoak dira:

1. Pinuak garraiatzeko lanak hasi baino lehenago EPELEko instalazioko hainbat elementu babestu beharko dira; besteak beste:
 - a. Garbiguneko atzeko partetik lixibiatuak plataformako piszinara eramateko hodia.
Hau burdinezko bi plaka karratu bitartez babestu beharko da, eta honen kostea baimenduak ordaindu beharko du. (karratu urdin txikia 2. argazkian “Kamioien pasotik babestu beharreko tuberia edo hoditeria”).
 - b. EPELEko harrobi eta pistara daraman sarbidearen lehenengo zatia (laranjaz margotuta 2. argazkian “Kamioien pasotik babestu beharreko eremua”).
Hau babesteko ezin izango da hondakinik erabili. Erabili ahal daitekeen materiala, kanterako materiala izango da, edo balorazio plantetatik datorren baimendutako materiala.
Mankomunitateak ez du baliabiderik jarriko honetarako edo beste edozein operazio egiteko (materiala, makinaria edo pertsonala).
2. Ez da onartuko gainazaleko urak zikintzea, eta horretarako lan hauek egiten dituztenak honakoa izan beharko dute kontuan:
 - a. Euri egunetan ezin izango dute EPELEko zabortegiko sarbideak erabili.

- b. Lokatarik balego, kamioien gurpilak garbitu beharko dira EPELEko garbigunera sartu baino lehenago. Horretarako Garbigunean bertan ur puntu bat dago erabilgarri, eta 2. argazkian, ur puntua eta gurpilak garbitzeko eremua azaltzen dira.
Hala ere bertako ura nahiko ez balitz izango lan hauek egiteko, pinuak ateratzen duenaren kontura joango da uraren hornidura. Gainera, EPELEko txabolan dauden ur beharrak lehentasuna izango dute ur erabileran.
 - c. Pinuak ateratzearen ondorioz, EPELEko zabortegiko Garbigunean eta sarbidean sortzen diren lokatzak egunero garbitu beharko dira jardunaldia amaitzean.
 - d. Ezin izango da erabili zabortegian dagoen gurpil garbigailua, kamioiaren gurpilak garbitzeko.
 - e. Pinuak ateratze lanen ondorioz, zabortegiaren ondoko kanaletik detektatuko balira ur zikinak (lurrez kargatuta), berehala neurriak hartuko dira egoera zuzentzeko. Bitartean, Mankomunitateak baloratuko du lanak gelditzea edo ez.
 - f. Pinuak ateratze lanen ondorioz, zabortegirako sarbideak nolabaiteko kalterik jasaten badu, baimendua beharturik dago bidea konpondu eta berriz egungo egoeran jartzera, eta edozein kasutan ere lanen eragina jasan duen bidearen zorua ondo jarri beharko du berriz.
3. Zabortegirako sarbidea honako ordutegian egongo da zabalik:
 - a. Abuztuan, astelehenetik ostiralera goizeko 8:00etatik, arratsaldeko 15:00rak arte.
 - b. Gainontzeko hilabeteetan astelehenetik ostiralera goizeko 8:00etatik, arratsaldeko 18:00rak arte.
 - c. Jai egunetan itxita egongo da zabortegia eta sarbidea.
 4. Mankomunitatea ez da egingo kargu sarbideko pistaren egoeraz, eta pinuak ateratzeko baldintzak izango ez balitu, Mankomunitateak ez du izango honetan inongo erantzukizunik.
 5. Pinuak ateratzeko lan hauek zabortegian Mankomunitateak egin beharreko beste obra batzuekin partekatuko balute lan eremua, baimen hau bertan behera geldituko da, Mankomunitateak egin beharreko obrak bukatu arte.
 6. Ez da baimentzen asfaltatu edo hormigonatutako bideetatik katez lotutako ibilgailuak zirkulatzea.



2. Argazkia. Babestu beharreko elementuak eta instalazio gehigarriak

AKOPIOAK EDO PILAKETAK

Pinuak ateratzeko lanen ondorioz aurreikusten diren akopio eremuak bi izango dira:

1. Zabortegiko sarbidetik irtengo den egurrarentzat erabiliko dena eta EPELEko harrobian kokatuko dena (ikusi 3. argazkia).
2. Beste puntu batzuetatik irtengo den egurrarentzat erabiliko dena eta zabortegirako beheko atearen ondoan gelditzen dena (ikusi 4. argazkia)



3. Argazkia. Akopio eremua 1



4. Argazkia. Akopio eremua 2

Akopio hauek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Segurtasun baldintzak bete beharko dituzte, saihesteko enborren mugimenduak. Horretarako behar diren neurriak hartu beharko ditu pinuak atera eta garraiatzen dituenak.
- Bigarren akopio eremuan (ikusi 4. argazkia) lanean aritzeko:
 1. Bertan egingo diren karga eta deskarga lanak, zabortegiko orduetatik kanpo egingo dira, zabortegiko erabiltzaileei arazorik ez sortzeko.
 2. Horretaz aparte, zabortegian obrak egingo balira (Mankomunitateak abisatuko du egoera berri honetaz), karga eta deskargako operazioak ondo seinalizatuta egon beharko dira, eta bermatu egingo da edozein kamioi pasatzeko leku librea izango duela.
 3. Errepide osoan ezin izango da lokatzik ezta egur zati edo pinu azalik egon. Egoera hau saihesteko pinuak ateratzeko egiten diren lanen arduradunek jarri beharko dituzte behar diren neurriak.

BESTE BALDINTZA BATZUK



- Baimen hau irailaren 30era arte izango da. Beraz, irailaren 30erako bai pinuak ateratzeko lanak, bai pilaketa lanak bukatuta egon beharko dute.
- Pinuak ateratzeko edo pilatzeko lanak Epeleko Zabortegiaren jarduera propioaren funtzionamendu normalari eragin gabe egin beharko dira. Zabortegiaren funtzionamenduak lehentasuna izango du beti.
- Pinuak ateratzeko lanak edo pilaketa lanak egin bitartean, edozein pertsona, jabetza edo zerbitzuri —publiko edo pribaturi,—, Debagoieneko Mankomunitatea barne egiten zaizkion kalteen erantzule baimendua izango da, baldin eta bere ardurapeko langileen egite, ez-egite edo axolagabekeriaren ondorioz baldin bada, edota lan horien antolaketa, babes edo seinaleztatze okerraren ondorioz.
- Aipatu lanak egin bitartean, baimenduak Mankomunitateak emandako aginduak bete beharko ditu.
- Pinuak aterako dituen enpresak, araudiak eskatzen dituen lan prebentzio baldintzak bete beharko ditu, eta Mankomunitatearekin batera "Coordinación de Actividades Empresariales" protokoloa martxan jarri beharko du. Asunto hau ahalik eta azkarren ixteko, gure prebentzio teknikaria zuekin jarriko da harremanetan jakiteko zein izango den enpresa eta berak eskatuko die behar den dokumentazioa.
- Pinuak ateratze lanetan hasi aurretik Aitzol Velascok 12.000 €-ko fidantza bat jarri beharko du, lan hauek direla eta Mankomunitateari eragin diezazkiokeen kalteak bermatzeko.
- Ezarritako baldintza guztiak ez badira betetzen Mankomunitateak bukatutzat emango du eremu hauek erabiltzeko baimena.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

Enplegua eta Prestakuntza

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; eskaera berri bat

- **Eskaera berria; IVAN ROMAÑA RODRIGUEZ**

Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren zerbitzu modulu bat erabiltzeko eskaeraren berri eman da; zerbitzu eta prozesu industrialen, automatismoen eta pneumatikako programazio informatikorako izango da.

Tutorearen txostena ikusirik, eta Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

- IVAN ROMAÑA RODRIGUEZ jaunari baimena ematea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren (1-ZM) zerbitzu modulua eskusiboki erabil dezan.

Erabaki honen jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean onuradunak ez badu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Erregelamenduaren 8. artikuluan zehazturiko dokumentazioa eta fidantza aurkezten, baimen hau indarrrik gabe geratuko da.

Baimen hau urtebeterako izango da eskatzaileak aipatu dokumentazioa eta fidantza aurkezten duenetik aurrera.

4.2.- 2016/2017 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko Programa kudeatzeko kontratuaren luzapena

2015/2016 ikasturtean Eskolatzeko Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko ARIZMENDI S.COOP. enpresarekin 2015eko irailaren 1ean sinatutako kontratuaren hirugarren klausulan ezarritakoaren arabera, eta kontratistaren adostasunarekin, Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipaturiko kontratua beste urte betez luzatzea, hau da, 2016/2017 ikasturterako.

4.3.- Mankomunitatearen Nafarroa Etorbidea 21eko instalazioak ARIZMENDI KOOP. ELKARTEari "Oinarrizko Lanbide Heziketa" Programa garatzeko dohainik erabiltzen lagatzeko hitzarmena

Lanbide Hastapena derrigorrezko bigarren hezkuntzako titulazioa lortu ez duten ikasleei lanerako prestakuntza eman eta gizartean txertatzen laguntzeko helburuekin garatutako programa da. Debagoieneko Mankomunitateak Lanbide Hastapeneko ikastaroak antolatu izan ditu, iaz arte, azkeneko 28 urteetan.

Debagoieneko Mankomunitateak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko laguntzarekin, programa garatzeko baliabideak eta finantzazioa landu eta bermatu ditu urte guzti horietan. Urte horietan programak ezagutu duen bilakaera aipagarria izan da, horrela prestakuntza ez arautua izatetik, arautua izatera pasatu da eta baliabide eta Mankomunitateak egindako inbertsioei esker, kokapen ezegokiak izatetik egoitza egokitua eta ondo hornitua izatera bidea egin du.

Azkeneko urteetan Lanbide Hastapena "Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa" izenarekin ezagutu dugu eta LOMCE legearen onarpenaren ondoren, Eusko Jaurlaritzak orain arteko "Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa" "Oinarrizko Lanbide Heziketa" izena duen programatik ordezkatu du. Izen ezberdinekin bada ere, urte guzti hauetan, programak, 16-18 urte tarteko prestakuntza gabeko gazteak lanbide heziketaren bidean jartzeko eta gizartean txertatzeko ahalmena soberan demostratu izan du.

Debagoieneko Mankomunitateak hasieratik garatu du Programa hau eta lehenengo hiru urteetan ezik, gainontzekoetan Programa hau antolatu, kudeatu eta garatzeko



zerbitzua kontratatu du. Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, azkeneko urteetan Arizmendi Koop. Elkarteak izan da kontratu honen esleipenduna, horretarako

Debagoieneko Mankomunitateak egokitutako eta hornitutako instalazioak erabili dituelarik.

laz, Hezkuntza kalitatea hobetzeko Legean “Oinarrizko Lanbide Heziketa”ri buruz jasotakoaren arabera, Mankomunitateak ezin izan zuen programa garatzeko beharrezkoa den Jaurlaritzaren baimenik jaso. Ondorioz eta programaren jarraipena arriskuan egonda, eta horrek, programak zerbitzua ematen dien eskualdeko gazteentzako suposatuko lukeen kaltea eragotzi nahian, Mankomunitateak, ordura arte

Programa hau kudeatu zuen Arizmendi Koop. Elkartearekin hitz egin zuen, eta bi aldeek adostu zuten 2015-2016 ikasturtean OLHko maila bakoitzeko bi tailerrak (guztira lau tailer) antolatzeke eta kudeatzeko Arizmendi Koop. Elkarteak baimena eta kontzertazioa eskatzea, eta Mankomunitateak, aurrez kalifikazio juridikoa aldatzeko zegokion espedientea izapidetuz, Programa hau garatzeko bere instalazio eta ekipamendua dohainik aipatu Kooperatibari lagatzea.

Aurtengo ikasturtean (2016/2017), eta hurrengoetan ere aipatu Kooperatiba Elkarteak kontzertatutako duenez zuzenean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin programa honen garapena, eta kontuan izanda Arizmendi Koop. Elkarteak 2002ko urtarrilaren 4an Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuak “Onura publikoko erakundea” izendatu zuela, eta eskualderako hain garrantzitsua den Programa honen jarraipena bermatzeko helburuarekin,

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1.- Arrasateko Nafarroa Etorbideko 21ean kokaturiko Mankomunitatearen instalazioak (tailerrak, ikasgelak, bulegoak, etabar), bere ekipamenduarekin, ARIZMENDI KOOP. ELKARTEARI dohainik erabiltzen lagatzea “Oinarrizko Lanbide Heziketa” programa garatzeko hurrengo bi ikasturteetan (2016/2017 eta 2017/2018), ondorengo klausulen arabera:

1.- Lagapenaren helburua

Debagoieneko Mankomunitateak hitzarmen honen eranskinean zehaztutako Arrasateko Nafarroa Etorbideko 21. zenbakian kokatzen diren lokal, instalazio eta ekipamenduen erabileraren doako lagapena egiten dio Arizmendi Koop. Elkarteari, eta honek hartu egiten du hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan.

Debagoieneko Mankomunitateak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko laguntzarekin “Eskolatze Osagarria” programa garatzen du urtero eta horretarako hitzarmen honetan lagatzen diren lokal eta instalazio berberak erabiltzen dira. 2016-17 ikasturtean “Eskolatze Osagarriko” programaren kudeaketa teknikoak ere Arizmendi Koop. Elkarteak egingo du, Mankomunitatearekin sinatutako administrazio-kontratu baten bitartez. eta ondorioz lokal eta instalazioen kudeatzaile bakarra izango da. Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Eskolatze Osagarria programek aipatutako baliabideak partekatzen dutelarik.

2.- Lagapenaren iraupena

Lagapen-hitzarmen hau bi ikasturtetarako egiten da (2016/2017 eta 2017/2018), eta 2018ko uztailaren 31n bukatuko da.

Ondorioz, hitzarmen hau automatikoki iraungiko da aipaturiko indarraldiaren bukaeran, onuradunari inolako errekerimendurik egin beharrik gabe, eta lagatako lokalak, instalazioak eta ekipamenduak onuradunak erabiltzen jarraitzeak ez du inola ere isilbidezko luzatzea inpliketzen. Denboraldi hori igarota, eta bi aldeek horrela nahi badute, beste lagapen-hitzarmen bat sinatu beharko dute.

Beraz, itundutako epea amaitzean, onuraduna beharturik dago lokalak, instalazioak eta ekipamenduak jasotzen dituen egoeran jabetzari itzultzeko. Lagapen epean egindako hobekuntzak ez dute inongo eskubiderik sortuko onuradunarentzat.

3.- Fidantza

Hitzarmen hau sinatu aurretik, ARIZMENDI KOOP. ELKARTEak 4.000,- €-ko fidantza ordaindu dio Debagoieneko Mankomunitateari hitzarmen honetatik eratorritako betebeharrei erantzuteko.

4.- Arizmendi Koop. Elkartearen betebeharrak

Deskribaturiko ondasunak Oinarrizko Lanbide Heziketa programa garatzeko soilik lagatzen dira. Onuradunak ez balu baldintza hori beteko, hitzarmena suntsiarazita geratuko litzateke eta fidantza galduta, eta baldintza hau, bere garrantzi eta izaeragatik, hitzarmena suntsiarazteko baldintza esplizitua da, ondorio guztietarako.

Hitzarmen hau izenpetzean lagapen-xede diren ondasunak onuradunari emantzat joko dira; onuradunak aitortzen du ezagutzen duela zein egoeratan dauden, eta horregatik ezingo dio Mankomunitateari erreklamaziorik egin.

Lagatako ondasunak baimendutako erabileren arabera erabiliko ditu onuradunak; beharturik dago egoera ezin hobean mantentzera, erabiltzaileek eragindako kalteen erantzule ere bera izango da, eta hartu zituenean zeuden egoera berean itzuli beharko ditu. Onuradunak ezingo du egin eraikinaren egitura alda dezakeen obrarik.

Debekaturik geratzen da hitzarmen honen xede diren ondasunak guztiz edo partzialki beste batzuei lagatzea.

Onuradunaren kontura izango dira lagatako lokalengatik ordaindu beharreko zabor tasa. Aldiz jabetza zergapetzen duten zerga, tasa, kontribuzio eta abarrak Debagoieneko Mankomunitateko kontura izango dira.

Lokalen eta ekipamenduen egoera egokia bermatzeko Debagoieneko Mankomunitateak urtero 1.000,- euroko partida bat aurreikusiko du lokaletan eta instalazioetan mantenu lanak egiteko. Horretaz gain urtero 4.000,- euroko partida bat aurreikusiko du ekipamenduen berriztapena egin ahal izateko. Kopuru horietatik kanpo onuradunaren kontura izango dira ezinbestekotzat jotako hobekuntzak eta instalazioen funtzionamendu hobeko lagungarriak



direnak, baita horietatik eratorritako zergak, tasak, etab. ere, baina horiek egiteko aldez aurretik Mankomunitatearen berariazko baimena lortu beharko da, eta azkenean honen jabetzakoak izango dira. Arau horretatik kanpo

geratzen dira onuradunak jarritako altzari edo objektuak, lagapen epea amaitzean erretira daitezkeenak, betiere inolako kalte edo hondaketarik eragin gabe lagatako instalazioetan.

Mankomunitatearen esku geratuko da lagatako ondasunen kontserbazio-egoera une oro ikuskatzeko ahalmena. Kontserbazio egokirik eza aski arrazoi izango da hitzarmena suntsiarazteko.

Onuradunaren kontura izango dira lagatako lokalaren barruan jarduera egitearen ondoriozko gastuak, besteak beste aktibitatea garatzeko kontsumoak (energia elektrikoa, ura, gasa, telefonoa, etab.) Dena den, lagatzen diren lokalak Debagoieneko Mankomunitateko eraikinean daudenez, hornitzaileei Debagoieneko Mankomunitateak ordainduko die eta ondoren, izandako gastuak onuradunari kobratuko dizkio.

5.- Erantzukizunak eta aseguruak

Onuradunaren betebeharra izango da lagatako instalazioetan egiten dituen eragiketen ondorioz hirugarrengoei eta Mankomunitateari berari eragiten zaizkien kalte guztiak ordaintzea.

Bestalde, erantzukizun zibileko poliza bat egin behar du onuradunak, lagatako instalazioetan garaturiko jardueraren ondorioz hirugarrengoei eragiten zaizkien kalteentzako aski estaldura izango duena, baita bere arrisku guztiak estaltzeko beharrezko beste poliza guztiak ere (ustiapenerako, izakinatarako, negozioia eteteko... aseguruak).

Onuradunak indarrean mantendu behar ditu aipaturiko aseguruak lagapenaren iraunaldi osoan, urtero ordainduz aseguru-etxeari dagozkion sariak.

Onuraduna izango da beren jarduera eta negozioaren zuzeneko edo zeharkako ondorioz hirugarren pertsoneri edo gauzei eragiten zaizkien kalteen erantzulea zuzenean eta eskusiboki, erantzunbehar orotatik salbuetsiz Mankomunitatea.

6.- Baimenak eta lizentziak

Onuradunak bere kontura soilik lortu behar ditu dagozkion obra-baimenak, baita bere jarduera hasteko eta garatzeko berariazko baimenak ere.

Onuradunak zenbait jarduera Mankomunitatearen berariazko adostasunez egiteak ez du esan nahi Mankomunitateak inolako bermerik ematen dionik beharrezko administrazio-baimen edo lizentziak benetan lortzeari buruz. Beraz, onuradunak ezingo dio inolako erreklamaziorik egin Mankomunitateari baimen horiek ukatu edota gero baliogabetzen badizkiote.

8.- Hitzarmena suntsitzeko arrazoiak

Indarrean dagoen araudian ezarritakoaren kalterik gabe, hitzarmena suntsitzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

- *Bi aldeen arteko adostasuna.*
- *Hitzarturiko epea amaitzea.*
- *Hitzarmen honetan ezarritakoaz bestelako jarduera baterako erabiltzea lokala.*
- *Onuradunak jardueraren prestazioa, hau da Oinarrizko Lanbide Heziketako programa, ez garatzea.*
- *Aldez aurretik eta idatziz Mankomunitateak baimendu gabeko obrak egitea lokalean.*
- *Zorpekoak izatea aseguruen ordainketan edota horiek estalitako ondasunen azpi-balorazioa.*
- *Indarrean dagoen araudiak jarduera garatzeko une bakoitzean eskatzen dituen baimenak ez izatea.*
- *Lagatako ondasunen kontserbazio egokirik eza.*

4.4.- 2016ko Enplegu Plana; diru-laguntza eskaera

Agentzia Batzordearen ondorengo proposamenaren berri eman da:

“Enplegu Planaren Deialdia 2016

2016ko ekainaren 16an argitaratu da Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez onartutako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2016ko ekitaldiko laguntzen deialdia.

Guztira, 21 miloi euro banatuko dira, horietatik 15 miloi parametro orokorren arabera banatuko dira 1go eta 2. kontratazio motak egiteko. Debagoieneko eskualderako 318.893,57 euro egongo lirateke kontratuak egin ahal izateko.

Enplegu Planaren barnean Debagoieneko eskualdean egingo diren lan kontratuak eta diru-laguntzaren banaketa nola gauzatu behar den hurrengo asteetan erabaki beharra dago, Mankomunitateak eskaera uztailaren 17a baino lehenago egin behar baitu.

Udal bakoitzak erabaki beharko du ze kontratu kopuru eta dedikazioekin egiten dituen, baina zatikako jardunaldirako egiten badu gutxienez jardunaldiaren %50koa izan beharko da. Kontratuen iraupena gehienez 6 hilabetekoa izango da eta gutxienez 3 hilabetekoa.

Egindako deialdian, eskualderako diru-laguntza 318.893,57 eurokoa izango da. Hori guztia kontuan izanik, aurreko deialdietan jarraitutako irizpideak aplikatzen baditugu diru-laguntzaren banaketa ondokoa izango litzateke:

UDALERRIA	2016	
ARRASATE	%34,51	110.050,17
BERGARA	%21,43	68.338,89
OÑATI	%13,90	44.326,21
ARETXABALETA	% 9,26	29.529,54
ESKORIATZA	% 8,14	25.957,94
ANTZUOLA	% 5,46	17.411,59



ELGETA	% 4,07	12.978,97
LEINTZ GATZAGA	% 3,23	10.300,26
GUZTIRA	% 100	318.893,57

Aurreko deialdietan hartutako erabakien arabera, ondoko irizpideak jarraituko lirateke:

- Deialdiak ezarritako 1go lerroko kontratuak egitea, hau da, udalek zuzenean egingo dituzte kontratuak.
- Udalen arteko diru banaketa egiteko 2013an adostutako irizpideak jarraitzea eta beraz aurreko taulan agertzen den banaketa egitea.
- Uztailaren 12rako udal bakoitzak egingo dituen kontratuak eta horien kosteeekin proposamena bideratzea Mankomunitatera eskaera osatu ahal izateko.
- Kontratuak eskakizun ezberdinak betetzeko baldintzak banatzeko (%30 RGI, %40 emakumeak eta %15 55urte baino nagusiagoak) teknikarien arteko bilera bat egitea eta ardurak banatzea. Aipatutako kolektiboetan sartzen ez diren pertsonak
- Kontratuko gehienezko diru-laguntza 12.500,- eurokoa izango da.

Kontratutako diren pertsonak ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

- Langabeak izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailer gisa izena emanda egotea.
- Eskualde edo udalerriko kontratazio guztien % 30 gutxienez **DSBERen titular** diren pertsonak izatea.
- Gainerako ehunekoak kolektibo hauetako batekoak beharko du izan:
 - 35 urtekoak edo hortik beherakoak.
 - Gutxienez sei hilabete izena emanda daramatzaten 45 urtetik gorakoak.
 - 55 urtetik gorakoak. (kontratututakoen %15a izan beharko dira.
 - Iraupen luzeko langabeak (kontratatu aurretiko 18 hiletan, gutxienez, lan-eskatzailer gisa inskribatuta egon eta langabezia 12 hilabete eman dutenak).
 - Gizartetik baztertzeko arriskua duten pertsonak: a) DSBERen titularrak eta haien bizikidetzaren unitateko kideak. b) 18 eta 30 urte bitarteko gazteak, adingabeak babesten dituzten erakundeetatik datozenak. c) Drogazaletasun-arazoak edo mendekotasun-arazoak dituzten eta errehabilitazioko edo gizarteratzeko prozesuan dauden pertsonak. d) Presoak, baldintzapean aske daudenak eta preso ohiak. e) Preso adingabeak (ikusitako deialdia), zaintzapean aske dauden adingabeak eta preso adingabe ohiak. f) Agintari eskudunek baimendutako larrialdietako bizitokietarako zentroetatik datozenak.
 - Desgaitasuna dutenak.
 - Familia-erantzukizunak dituzten emakumeak (ardurapean ezkontidea, 26 urtetik beherako seme-alabaren bat, 26 urtetik gorako seme-alaba ezinduren bat edo harreran hartutako adin txikikoren bat dutenak).
 - Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak. 4. Kontratututakoen % 40k gutxienez **emakumeak** izan behar dute.

Aurreko deialdietan egin den moduan eskualdeko udalek 2016ko Enplegu Planerako egindako kontratuen proposamenak ondoren jasotzen dira:

Arrasateko Udala:

Arrasateko udalak 9 kontratu egin behar dituela komunikatu du.

Bergarako Udala:

Bergarako udalak 6 kontratu egingo ditu:
2 administrari, 3 ofizial pintoreak eta pioi bat.

Oñatiko Udala:

Oñatiko udalak 3 hilabeteko 8 kontratu egingo ditu.

Aretxabaletako Udala

Aretxabaletako udalak bi pioi eta informatikari bat kontratatzea aurreikusten du.

Eskoriatzako Udala

Bi pioi eta informatikari bat.

Antzuolako Udala

Antzuolako udalak 2 pioi kontratatzea aurreikusten du

Elgetako Udala:

Kultura, euskara eta Turismoko teknikari bat kontratatzea aurreikusten du.

Leintz Gatzagako Udala

Gida lanak egiteko pioi bat kontratatzea aurreikusten da.

LANBIDEK EZARRITAKO BETEBEHARREN BANAKETA

KONTRATUAK GUZTIRA: 33

Arrasate	9	27%
Bergara	6	18%
Oñati	8	24%
Aretxabaleta	3	9%
Eskoriatza	3	9%
Antzuola	2	6%
Elgeta	1	3%
Leintz Gatzaga	1	3%

BETEBEHARRAK

Emakumeak	40%	13 kontratu
> 55 urte	15%	5 kontratu
RGI	30%	10 kontratu

TEKNIKARIEK MAHAIK PROPOSATURIKO BANAKETA

RGI

>55

Emakumeak



Arrasate	9	3	2	3
Bergara	6	2	1	2
Oñati	8	2	0	3
Aretxabaleta	3	1	1	1
Eskoriatza	3	1	1	1
Antzuola	2	1	0	1
Elgeta	1	0	0	1
Leintz Gatzaga	1	0	0	1
GUZTIRA	33	10	5	12

Batzordearen proposamena aztertu ondoren, Gobernu Juntak aho batez onartu ditu 2016ko Enplegu Plana garatzeko diru-laguntza banatzeko irizpideak.

Kontratuen gai honi buruz eta beste hainbat gairi buruz hitz egiteko LANBIDEkin bilera bat egiteko komenigarritasuna planteatu da.

4.5.- Lan orientazio ekintzak garatzeko bitarteko funtzionario baten izendapen proposamena

Garapen Agentziako arduradunaren ondorengo proposamenaren berri eman da:

“Debagoieneko Mankomunitateak, Lanbideren laguntza jaso ondoren, “Enplegu Zentroa” kudeatzeko 2016ko martxoaren 7an orientatzaile bat (Zuriñe Galartza) izendatu zuen urte baterako (2017ko martxoaren 6a arte). Orain Lanbidek Debagoieneko Mankomunitateak, 2016-17an orientazio ekintzak burutzeko egindako laguntza eskaera ontzat eman du, 750 orduko orientazio zerbitzuak finantzatuz.

“Enplegu Zentroa” zein “Orientazio Ekintzak” programak kudeatzeko Garapen Agentziako arduradunak, zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea bermatzeko, egokiago ikusten du bi orientatzaile izendatzea bakoitzak jardunaldi erdia programa bakoitzari dedikatuz. Hau da, orientatzaile bakoitzak “Enplegu Zentroa” eta “Orientazio Ekintzei” lotutako lanak burutzeko jardunaldiaren erdia emango zuen jardunaldi osoa betez. Horretarako 2016ko martxoaren 7an “Enplegu Zentroa” kudeatzeko egindako izendapena (Zuriñe Galartza) bertan behera uztea proposatzen da, beti ere, izendatutako behin behineko funtzionarioaren onspenaz.

Lanbidek jarritako epeak betetzeko asmoz, aipatutako izendapen horiek abuztuaren 1ean egitea proposatzen da. Ondorioz, jarraian proposatzen diren izendapenak egitea proposatzen da:

1.- Abuztuaren 1etik eta 2017ko martxoaren 6a arte Zuriñe Galartza jardunaldi erdiz (%50) “Enplegu Zentroa” kudatzeko behin behineko funtzionario bezala izendatzea.

2.- Abuztuaren 1etik eta 2017ko uztailaren 5a arte Zuriñe Galartza jardunaldi erdiz (%50) “Orientazio Ekintzak” programa kudeatzeko behin behineko funtzionario bezala izendatzea.

3.- Abuztuaren 1etik eta 2017ko martxoaren 6a arte Olaia Gerrikabeitia jardunaldi erdiz (%50) “Enplegu Zentroa” kudatzeko behin behineko funtzionario bezala izendatzea.

4.- *Abuztuaren 1etik eta 2017ko uztailaren 5a arte Olaia Gerrikabeitia jardunaldi erdiz (%50) "Orientazio Ekintzak" programa kudeatzeko behin behineko funtzionario bezala izendatzea."*

Gobernu Juntak aho batez onartu du Garapen Agentziako arduradunaren proposamena.

5.- LEHENDAKARITZA

5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak.

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

16/59.- 1.- E.V.M. kontratatzea ekainaren 11n eta 18an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko txofer-zamaketari bezala, ekainaren 16an Bergarako ibilbide komertziala egiteko zamaketari bezala, eta ekainaren 20tik 25era J.L. txofer-zamaketariaren ordezkapena egiteko. Lanpostu bakoitzari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- A.A.G. kontratatzea ekainaren 16an eta 17an J.J. zamaketariaren ordezkapena egiteko, eta ekainaren 18an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko zamaketari bezala. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- M.S.R. kontratatzea ekainaren 20tik 23ra D.G. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- M.E.C. kontratatzea ekainaren 22tik uztailaren 3ra arte R.L. Epeleko zaintzailearen ordezkapena egiteko, oporreratik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- Gaur egun Mankomunitate honetan ordezkapen bat egiten bitarteko funtzionario bezala lanaldi erdiz dagoen O.G.I. ingurumen teknikaria beste lanaldi erdirako 2016ko ekainaren 13tik urriaren 27ra arte izendatzea Ingurumen Zerbitzuko lan pilaketari aurre egiteko. Hileko 1.353,02 €-ko ordainsari gordina emango zaio.

16/60.- 1.- Etxeko hondakinak jasotzeko eta garraiatzeko alboko kargako ibilgailuen edukiontziak garbitzeko ibilgailuen hornikuntza kontratuaren bi loteak ondorengo enpresei esleitzea:

- 1. lotea, hau da, etxeko hondakinak jasotzeko eta garraiatzeko ibilgailuak, VOLVO GROUP ESPAÑA, S.A.U. enpresari, unitatea 195.110 €-ko prezioan, gehi BEZ.
- 2. lotea, hau da, edukiontziak garbitzeko ibilgailua, SOCIEDAD DE INGENIERÍA Y TRANSPORTES AUXILIARES, S.A. (SITA) enpresari, unitatea 201.500 €-ko prezioan, gehi BEZ.

2.- Kontratu hauen aurka kontratazioaren alorreko errekurtso berezia jar daitekeenez, enprekin dagokion kontratua sinatuko da erabaki hau jakinarazi eta hamabost lanegun igaro ondorengo bost eguneko epean.

16/61.- Etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuan gerta daitezkeen aldi baterako premiak edo beharrak betetzeko gidari/zamaketarien lan poltsa bat sortzeko Mankomunitate honek deitutako oposizio-lehiaketan

- 1.- Hautagai onetsien eta baztertuen zerrenda onartzea.
- 2.- Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzea.
- 3.- Oposizio-aldiko **lehen ariketa**, proba teorikoa eta proba praktiko idatzia, uztailaren 27an egingo da, goizeko 9:00etan, Debagoieneko Mankomunitatearen geletan, Arrasateko Nafarroa Etorbideko 17an.

16/62.- Garbiguneetan eta Epeleko zabortegian gerta daitezkeen aldi baterako premiak edo beharrak betetzeko zaintzaileen lan poltsa bat sortzeko Mankomunitate honek deitutako oposizio-lehiaketan

- 1.- Hautagai onetsien eta baztertuen zerrenda onartzea.
- 2.- Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatzea.
- 3.- Oposizio-aldiko **lehen ariketa**, proba praktiko idatzia, **uztailaren 28an** egingo da, goizeko 9:00etan, Debagoieneko Mankomunitatearen geletan, Arrasateko Nafarroa Etorbideko 17an.

16/63.- 1.- Hautagai onetsien eta baztertuen zerrenda berria onartzea, 2016ko ekainaren 16ko 16/62 lehendakaritzaren ebazpen bitartez onartutakoa aldatzen duena.

16/64.- 1.- Hautagai onetsien eta baztertuen zerrenda berria onartzea, 2016ko ekainaren 16ko 16/61 lehendakaritzaren ebazpen bitartez onartutakoa aldatzen duena.

16/65.- “Epeleko zabortegiko hegoaldeko euri-uren drainatze-azpiegituren obra osagarrien eta aldameneko ibarraren egonkortzearen Proiektua” gauzatzeko lanak egiteko OBRAS PÚBLICAS ONAINDÍA, S.A. enpresak aurkeztutako Segurtasun eta Osasun Plana onartzea, Segurtasun eta Osasunaren koordinatzaileak bere txostenean ezarritako baldintza eta aholku guztiekin.

16/66.- 16/17 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA LAUROGEITA HAMAR MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA SEI EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMO (190.986,65 €).

16/67.- Garapen Agentzia Zerbitzuko bitarteko funtzionarioa den Z.G.S. Katalunian ikasten ari den masterreko 2. fase presentziala egiteko eskatutako ordaindu gabeko baimena ematea, uztailaren 1etik 31 arte.

16/68.- 1.- A.A.G. kontratatzea ekainaren 25ean eta uztailaren 2an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko zamaketari bezala, eta uztailaren 1ean J.E. behin behineko zamaketariaren ordezkapena egiteko. Zamaketari lanpostuari dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- E.V.M. kontratatzea ekainaren 27an X.A. zamaketariaren ordezkapena egiteko, ekainaren 29an eta 30ean J.E. txoferrarena, eta uztailaren 2an Arrasateko ibilbide komertziala egiteko zamaketari bezala. Lanpostu bakoitzari dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- M.S.R. kontratatzea ekainaren 29an A.L. Garbiguneko zaintzailearen ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

4.- X.A.B. kontratatzea uztailaren 1etik 31ra J.E. txoferraren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- M.E.C. kontratatzea uztailaren 4tik aurrera, Epeleko zabortegiko lanaldi erdiko zaintzaile lanpostua behin betiko bete arte, dagokion prozesua bukatu ondoren, edota lanpostu hau kentzea erabaki arte. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

6.- J.M.K. txoferra kontratatzea uztailaren 4tik 10era eta abuztuaren 16tik 31ra M.L. langilearen ordezkapena egiteko, oporratik, eta uztailaren 11tik abuztuaren 15era I.A. langilearena. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.

7.- J.O.G.ri, Epeleko zabortegiko lan pilaketa dela eta, ekainaren 1ean egindako kontratua beste bi hilabeterako luzatzea, hau da, abuztuaren 31 arte.

16/69.- 1.- Enpresa-idea bat garatzeko Programa

Parte hartzaileen ondorengo zerrenda onartzea:

- A.F.G.
- P.M.L.P.

Hautagai baztertuak:

- A.J.V.G.
- Y.A.L.C.

Baztertzearen arrazoia: langabezian ez egotea.

2.- Enpresa proiektu berriak abian jartzeko Programa

Parte hartzaileen ondorengo zerrenda onartzea:

- J.L.M.
- A.O.H.
- G.L.L.

16/70.- 16/18 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira LAUROGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (94.899,37 €).

16/71.- A.A.G. kontratatzea uztailaren 4tik abuztuaren 3ra arte Debagoieneko mendi ibilbide sarearen garbitze lanak egiteko, hileko 1.957,38 €ko ordainsari gordinarekin, aipatu lanak egiteko.

16/72.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	200.000,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		200.000,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	200.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		200.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Mankomunitatearen batzarrari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

6.- GALDE-ERREGUAK

- Mikel Biainek dio beraiek entzun dutela Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak uztailaren 28an Errauskailuari buruzko lizitazioa onartuko duela, eta bere taldeak ez duela inongo informaziorik. Ez dela zilegi horrela jokatzeko. Bailara honetan ahalegin handiak egin direla eta emaitza onak lortu ere, eta Errauskailuaren proiektua aurrera badoa, beraiek ondo ikusiko luketela Debagoieneko Mankomunitatea Kontsortziotik irtetea.

Lehendakariak erantzun du berak gai honi buruz daukan dokumentazio guztia Juntakideei bidaliko diela.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 14:30etan, bukatutzat eman da bilkura.